

Ehun urte eta gero geopolitikak agintzen du



ASIER BLAS MENDOZA
EHU-KO IRAKASLEA
@AxiBM

Orain ehun urte *Zeruko Argia* argitaratu zen eta bederatzita hilabete geroago Eusko Ikaskuntzak Euskal Herriko Udal Administrazioaren Bazarra antolatu zuen. Halere, katalanen atzetik genbiltzan, 1914an Kataluniako Mankomunitateak argia ikusi eta honen lidergoan 1919ko urtarrilaren 19an Kataluniako estatutu proiektu bat onartu zuen. Madrilek bertan behera utzi zuen, Espainiak ez zuen parte hartu Lehen Mundu Gerran eta, ondorioz, iberiar penintsulako estaturik gabeko nazioek ez zuten izan Europako beste herrialde askok izan zuten abagunea autonomia edo independentzia eskuratzeko. 1910ean Europan 25 herrialde independente zeuden, 1919an 32 ziren borroka geopolitikoaren ondorio gisa.

Ehun urte geroago gauzak ez dira asko aldatu. Kataluniako estatu bat eraikitzeko borondatea erakutsi du, Euskal Herria aldiz, lan horretan ahul dabil. Edonola ere, batak zein besteak estatu bat eskuratu nahi badute argi eduki behar dute giltzarri nagusia borroka geopolitikoak izaten jarraitzen duela, gehiengo zabalaren logikarekin batera.

Kostu baxuko independentziaren propaganda agortuta dago. Kataluniako mar-

txan jarri zuen autodeterminazio eskubidea eskuratzeko borroka liskartsuak bere barne -gehiengo txikiak eta gain hartu nahi ez diren kostuak- eta kanpo mugak -geopolitikoak- topatu ditu. Espainia negoziatzera derrigortzeko liskaraldien gradua handitu behar da, baina katalan jendarteko gehiengoak ez dago prest bere ongizatea arriskatzeko. Errealitate honi aurre egiteko irtenbide beharrezkoa, baina ez nahikoa da independentismoak bere babesa handitzea. Jakina da aldebakarreko sezesio prozesuek herriaren babesa argudio bezala jarri dutenean, mahai gainean gutxienez bi herriko gehiengoak jarri dutela parlamentuan edota erreferendumean. Hau epe ertainean lortzeak ez dirudi ezinezko marka, Espainiaren trakeskeriak eta independentismoak arlo sozial eta kulturalen duen lidergoak ahalbidetu dezakete.

Gehiengoak luzatzea posible bada Katalunian, aldagai geopolitikoak ondo interpretatzeak zailagoa dirudi. Orain arte katalan independentismo hegemonikoak, eta berriki Euskal Herrikoak ere bai, desanexioaren paradigma besarkatu dute, hau da, estrategia da Mendebaldeko lausengatzea adierazteko termino geopolitikoetan sezesio prozesua ez dela arriskutsua.

Kontua da Espainiak gauza bera egiten duela sinesgarritasun gehiagorekin, izan ere, lurralde eremu handiagoa duen Estatu baina. Ondorioz, egun munduak bizi duen borroka geopolitiko gordinaren erdian, Mendebaldeak ez du bere gogoz Espainia haserretuko. Hobe Espainia osoa aliatu/menpeko gisa izatea, Katalunia eta Euskal Herria soilik baino.

Azaldutakoagatik esan daiteke estatu independente bat erdiesteko bidea ez dela Mendebaldeko losintxatzea, baizik eta bere kontraesanak bilatzea XXI. mendeko diplomazia multipolarra garatuz. Hipotesi alternatiboetan sartuz, iberiar penintsulan sezesio prozesuak lagunduak izan zitezkeen Europan Batasunaren integrazioaren eta federalizazioaren bizkortze prozesu baten bidez, Madrilek Bruselaren mesedetan lurralde subiranotasuna galduko balu. Hipotesi hori, ordea, ez da batere sinesgarria, ez behintzat mundu multipolarraren aldeko indarrek beraien posizioak indartzen ez badituzte edota hegemonia berri bat (Txina) agertzen ez bada. Orduan bai, Espainiaren desintegrazioa etor daiteke edota Europan Batasunaren integrazioan azelerazio handi bat Europan gainbehera pribilegiatuaren kudeaketa hobeto egite aldera. ●

